

## BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5271

*EBAZPENA, 2025eko azaroaren 20koa, Elikagaien Politika eta Industriako zuzendariarena, zeinaren bidez izendatzen baitira mahastizaintzako eta ardogintzako eraldaketa-instalazioetan eta azpiegituretan eta merkaturatze-egitura eta -tresnetan inbertsio material eta immaterialak egiteko laguntzen balorazio-batzordea –Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2025eko azaroaren 11ko Aginduan aurreikusia, 2026rako deialdia egiten duena– osatuko duten pertsonak (MAE inbertsioa).*

Agindua, 2025eko azaroaren 11koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez 2026rako laguntzak emateko deialdia egiten baita mahastizaintzako eta ardogintzako eraldaketa-instalazioetan eta azpiegituretan eta merkaturatze-egituretan eta -tresnetan inbertsio material eta immaterialak egiteko (MAE inbertsioa). Agindu horren 12. oinarriaren 2. paragrafoan hauxe xedatzen da:

«Eskabideak ebaluatu eta baloratzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko hiru bokalek osatuko dute, eta horietako bat enpresa-programaren arduraduna izango da. Beste biak, berriz, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzako teknikarien artetik aukeratuko dira, eta zuzendariaren ebazpen baten bidez izendatuko dira. Ebazpen horrek, era berean, adieraziko du nor izango den idazkaria eta nor batzordeburua. Balorazio-batzordea osatzen duten pertsona guztientzako ordezkioak ere izendatuko dira, aipatutako zuzendaritzako teknikarien artetik. Balorazio-batzordearen osakeri buruzko ebazpena EHAAan argitaratuko da, batzordea eratu aurretik».

Hala, eta bat etorritik Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuarekin, hau

### EBAZTEN DUT:

Honako hauek izendatzea Balorazio Batzordeko kide. Batzorde horrek Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2025eko azaroaren 11ko Aginduaren babesean aurkeztutako laguntza-eskabideak aztertu eta ebaluatuko ditu. Agindu horren bidez, mahastizaintzako eta ardogintzako azpiegituretan eta merkaturatze-egituretan eta -tresnetan (ISV inbertsioa) inbertsio materialak eta ez-materialak egiteko laguntzen deialdia egiten da 2026rako. Aipatu batzordeak aipatutako aginduaren 12. oinarriko 4. puntuan deskribatutako eginkizunak beteko ditu.

Hona, beraz, Balorazio Batzordeko kideak:

– Alfonso Arriola Lacruz jauna, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzaren enpresa programaren arduraduna; batzordeburua izango da. Marisa Fraile Correa andrea izango da haren ordezkia, Elikagai Politika eta Industriako Zuzendaritzako ikerketa programen arduraduna.

– Cristina Ortega Alvarez andrea, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzako teknikaria; idazkaria izango da. Adolfo Rey Eguíluz jauna izango da haren ordezkia, Elikagai Politika eta Industriako Zuzendaritzako teknikaria.

2025eko abenduaren 10a, asteazkena

– Pablo Arenas Alegría jauna, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzako teknikaria; bokala izango da. Eduardo Castillo Diaz jauna izango da haren ordezkoa, Elikagai Politika eta Industriako Zuzendaritzako teknikaria.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 20a.

Elikagaien Politika eta Industriako zuzendaria,  
IKER IGLESIAS EGUIA.